



**AZAROAREN 8KO 9/2017 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN
LEGEA: IDEIA GARRANTZITSUAK ETA ALDAKETA NABARMENAK**

2018ko martxo

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

Aurkibidea

Sarrera	4
1. Kontratu motak	5
1.1. Administrazio kontratuak	5
1.2. Administrazio kontratu bereziak	6
1.3. Kontratu pribatuak	7
2. Prozedurak	7
2.1. Prozedura irekia	8
2.2. Prozedura mugatua	9
2.3. Prozedura negoziatua	9
2.4. Elkarrizketa lehiakorra	10
2.5. Berrikuntzarako elkartze prozedura	10
2.6. Proiektuen lehiaketak	10
2.7. Kontratu txikiak	10
3. Kontratu txikiak	10
4. Prozeduran aldaketak	12
4.1. Kontratuaren espediente: hasiera eta edukia	12
4.2. Merkatuan aurretiazko kontsultak egitea	13
4.3. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, kontratuaren balio estimatua eta kontratuaren prezioa	13
4.4. Esleipen irizpideak	15
4.5. Loteak	16
4.6. Kontratuen iraupena	16
4.7. Erantzukizuneko adierazpena	17
4.8. Kaudimena enpresa berrien kasuan	17
4.9. Kontratazio mahaiak	18
4.10. Kontratuzio errekurtso berezia	18
4.11. Lankidetzak eta kontratuzio zentralak	19
4.12. Kontu-hartzailea	20
4.13. Idazkaria	20

5. Kontratuaren ondorioak, betetzea eta azkentzea	20
5.1. Eraldaketak	20
5.2. Azpi-kontratazioak	21
5.3. Kontratuaren erantzulea	21
6. Kontratazio elektronikoa	22
6.1. Espediente elektronikoa	22
6.3. Sektore publikoko kontratazioko plataforma	22
7. Kontuan izan beharreko beste batzuk	23
7.1. Kontratuaren izapidetzaren izaera	23
7.2. Epeak	24
7.3. Kontratazio organoaren eskumena	24
8. Legearen ondorioz, hartu beharreko neurriak	24
8.1. Hartutako neurriak	24
8.2. Hartu beharreko neurriak	25
9. Ondorioa	25
I. Eranskina. Kontratazio espediente ireki, mugatu, negoziatuen eskema orokorra (Kontratu txikiak eta emakidak kanpo)	
II. Eranskina. Kontratu txikien prozedura	
III. Eranskina. Kontratu txikien IN-E ereduak	
IV. Eranskina. Esleipen prozedurak zenbatekoengatik	
V. Eranskina. Publizitatea eta eskaintzak aurkezteko epea	

AZAROAREN 8KO 9/2017 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEA: IDEIA GARRANTZITSUAK ETA ALDAKETA NABARMENENAK

Sarrera

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Lege berria, lege luzea da (347 artikulua, 36 Xedapen gehigarri, 5 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, bukaerako 16 xedapen eta 4 eranskin ditu) konplexua eta sarritan ez da argia.

Legea Europar Batasuneko otsailaren 26ko 2014/23 eta 2014/24 Zuzentarauen ondorioz eman da.

Lege berriak nahi duena da osotasun kontzeptua sartzea kontratazioan, gizarte, ingurumen eta berrikuntzaren irizpideak sustatzea, gardentasuna bermatzea eta PYMEen parte hartzea areagotzea. Hori guztia ikus daiteke, jada, legearen 1. artikuluan, non esaten den:

Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduraren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztetik definituz, lehia askea babestuz, eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

...

Kontratazio publiko guztietan zeharka eta derrigorrean gizarte mailako eta ingurumen arloko irizpideak sartuko dira, betiere kontratuaren xedearekin

zerikusia duenean, ziur egonda hauek sartzeak kalitate-prezioaren arteko erlazio hobea emango diola kontratua ematean eta baita eraginkorragoa izango dela funts publikoak erabiltzean ere. Era berean enpresa txiki eta ertainak kontratazio publikoetan sartu ahal izatea erraztuko da, eta baita gizarte ekonomiako enpresak ere sartu ahal izatea.

Oso garrantzitsua da artikulua, zeren kontratazioaren oinarriko printzipioak ezartzen dira, eta horiek kontuan izan behar ditugu espediente guztian zehar.

1. Kontratu motak

1.1. Administrazio kontratuak (25.art):

2017ko legearekin bost administrazio kontratu mota dauzkagu:

- Lan kontratuak
- Lanen emakida kontratuak
- Zerbitzuen emakida kontratuak (lehengo kudeaketa zerbitzu kontratuak)
- Zerbitzuak
- Hornidurak

Desagertu dira: Lankidetzaren publiko-pribatuaren kontratuak eta Zerbitzuen kudeaketa kontratuak.

Emakida: ustiapena dago, non arriskua esleipendunak jasotzen duen. Kontzesiodunak jasotzen du arriskua, zerbitzuak edo lanak onurak eman badizkio edo ez, ez zaio bermatzen lanak edo zerbitzuak martxan jartzeko egindako inbertsioak edo kosteak berreskuratuko dituela.

Kontratu mistoak (18.art): kontratu mistoak izango dira kontratu batek administrazio kontratu 2 baino gehiago bereganatzen dituenean.

Erregulazio Harmonizatuko Kontratuak (SARA kontratuak, 19. art eta hurrengoak): Prozedura aldetik berdin mantentzen dira. Prozedura

aruntarekin erkatuz, publizitate aldetik aldaketak dauzka: Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean egin behar dira argitalpenak, epeak luzeagoak dira ...

SARA kontratuak izateko zenbatekoak hauexek dira:

Kontratua	Zenbatekoa
Lan kontratua	5.548.000 euro edo hortik gora
Lan emakida kontratua	5.548.000 euro edo hortik gora
Zerbitzu emakida kontratua	5.548.000 euro edo hortik gora
Zerbitzu kontratua	221.000 euro edo hortik gorakoak
Hornidura kontratua	221.000 euro edo hortik gorakoak

Aplikagarria den araudiari buruz, prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokionean, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta legea garapetzen duten xedapenak eraenduko dituzte eta osagarri modura, administrazioko zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira (39/2015 eta 40/2015 legeak, besteak beste), edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak.

1.2. Administrazio kontratu bereziak (25.b. art):

Lege batek horrela direla dioen kontratuak eta aurreko hizkian adierazitakotik bestelako helburua dutenak, baldin eta administrazio-izaera berezia badute administrazio kontratatzailearen jardun edo trafiko berariazkoari lotuta egoteagatik edo zuzenean edo zeharka haren eskumen berariazkoari dagokien xede publiko bati erantzuteagatik.

Lege berriarekin oso kasu gutxitan aplikatuko dira, lehen administrazio kontratu berezi moduan erabiltzen zirenak, orain zerbitzuak edo emakida zerbitzuak izango direlako.

Aplikagarria den araudiari buruz, prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetze eta azkentzeari dagokionean, lehenengo eta behin berariazko legeak

aplikatuko dira (pleguak), berariazko legerik ezean, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta legea garapetzen duten xedapenak eraenduko dituzte eta osagarri modura, administrazioko zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira (39/2015 eta 40/2015 legeak, besteak beste), edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak.

1.3. Kontratu pribatuak (26.art)

Kontratu pribatuak dira administrazio kontratuak eta administrazio kontratu bereziak ez direnak.

Beti ere, hurrengoak: finantza zerbitzuak, zerbitzu artistikoak, literarioa, ikuskizunak, datu baseen edo aldizkarien harpidetzak...

Aplikagarria den araudiari buruz, administrazio publikoek egiten dituzten kontratu pribatuak, prestatzeari eta esleitzeari dagokionean, berariazko legerik ezean, orokorrean azaroaren 8ko 9/2017 legearen bigarren liburuko I tituluko I kapituluko 1. eta 2. atalek eraenduko dituzte eta lege hau garatzeko xedapenek eta osagarri modura, administrazioko zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira (39/2015 eta 40/2015 legeak, besteak beste), edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak –subjektu edo erakunde kontratatzailearen arabera zer dagokion-. Ondorio, betetze eta azkentzeari dagokionez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren pean egingo dira.

2. Prozedurak

Sei prozedura bereizi daitezke:

- a) Prozedura irekia
- b) Prozedura mugatua
- c) Prozedura negoziatua
- d) Elkarrizketa lehiakorra

e) Berrikuntzarako elkartze prozedura (Berria)

f) Proiektuen lehiaketak

Erregela orokorra prozedura irekia edo mugatua erabiltzea izango da. Bestelako, prozedura erabiltzeko justifikatu beharko da.

Prozedurak aurreko legearekin erkatuz antzekoak dira. Hala ere badaude berritasunak:

2.1. Prozedura irekia (156. Artikulua eta hurrengoak)

Prozedura irekia bere horretan mantentzen da, baina berritasun moduan bi azpi prozedura arautu dira, prozedura horiekin ordezkatu nahi zaio lehengo publikitate gabeko prozedura negoziatuari eta kontratu txikiei.

2.1.1. Prozedura ireki sinplifikatua (159 art)

2 baldintza bete behar dira prozedura hori erabili ahal izateko:

a. Lan kontratuak 2.000.000 euro edo gutxiagoko balio estimatua izatea

Zerbitzu eta hornidura kontratuak 100.000 euro edo gutxiagoko balio estimatua izatea

b. Esleipenerako irizpide subjektiboak %25 baino gehiago ez izatea (salbuespenak daude arkitektura, ingeniari zerbitzuak, adibidez)

Epeak gutxitzen edo zehazten dira prozedura honetan, baina oro har ez dauka prozedura irekiarekiko aldaketa handirik.

Berezitasun moduan, iragarkian jarritako erregistroan soilik aurkez daitezke eskaintzak.

2.1.2. Prozedura ireki oso sinplifikatua (159.6 art)

Bi baldintza bete beharko dira prozedura mota hori erabiltzeko:

b. Lan kontratuak 80.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua izatea

Zerbitzu eta hornidura kontratuak 35.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua izatea (salbu eta izaera intelektualekoak)

b. Esleipen irizpideak objektiboak 100%ean, formulen bitartez

Prozedura honen berezitasunak dira:

- Eskaintzak aurkezteko epeari dagokionez orokorrean ez du suposatzen aldaketa handirik, zeren 15 egun naturalekoa bada erregela orokorra, kasu honetan 10 lanegunei buruz hitz egiten da. Aldaketa dago, merkatuan dauden ondasunen erosketa arruntetan, epea 5 lanegunekoak baita.

- Izapideak gutxitzen dira: ez da kaudimena egiaztatu behar; gutun-azal bakarra egongo da; ez da bermerik eskatuko; ez da zertan kontratazio mahaia egon behar; ez da kontratua formalizatu behar, izan ere, esleipendunak esleipen ebazpena sinatzearekin nahikoa da.

Idea da hilabetean kontratua esleituta egon ahal izatea.

Bai prozedura ireki sinplifikatuan eta oso sinplifikatuan lizitatzailak Erregistro ofizialetan egon behar dira inskribatuta, horretarako 2018ko irailaren 9ra arteko epea dute.

2.2. Prozedura mugatua (160.art)

Ez dago aldaketa azpimagarririk.

2.3. Prozedura negoziatua (166. art.)

Desagertu da publizitate gabeko prozedura negoziatua zenbatekoagatik.

Beraz, publizitate gabeko prozedura negoziatua legeak ezarritako kasu zehatzetan baino ezin izango da erabili, bestak beste:

- Arte lanak edo ordezkaritza artistikoak merkatuan ez dagoenean lehiaketarik

- Aurreko prozedura ireki edo mugatua ez denean inor

Aipatu behar da negoziatzea ezinbestekoa dela.

2.4. Elkarrizketa lehiakorra (172.art)

Ez dago aldaketa nabarmenik.

2.5. Berrikuntzarako elkartze prozedura (Berria) (177.art)

Prozedura berria da, prozedura horren bitartez produktu, lan edo zerbitzu berritzaileak erosi nahi dira, merkatuan ez daudenak. Beraz, lehenengo ikerketa eta garapen lanak egongo dira; gero, exekuzioa edo erosketa.

2.6. Proiektuen lehiaketak (183)

Ez dago aldaketa azpimagarrik

2.7. Kontratu txikiak

I.Eranskina. Kontratazio espediente ireki, mugatu, negoziatuen eskema orokorra (Kontratu txikiak eta emakidak kanpo)

3. Kontratu txikiak (29.8, 63.4, 118 eta 131.3 artikulua)

Epea: urte 1ekoak eta ezin dira luzatu.

Zenbatekoa: Kontratu txikiak izango dira lan kontratuetan balio estimatua 40.000 euro baino gutxiagokoa bada eta hornidura eta zerbitzuetan 15.000 euro baino gutxiagokoa bada.

Kontratua	Zenbatekoa
Lanak	<40.000
Hornidurak	<15.000
Zerbitzuak	<15.000

Espedientean izan beharrekoak:

- kontratazio organoaren txostena beharrezana justifikatzeko (Zergatik burutu behar dugun kontratua, ez helburua)
 - Gastua onarpena
 - Faktura
 - Gainera, lan kontratu txikietan behar da aurrekontua, proiektua, dagokionean, eta ikuskapen-txostena lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari eta estankotasunari eragiten badie.
- Justifikatuko da kontratuaren helburua ez dela aldatu kontratazio arau orokorrak ez aplikatzeko eta kontratistak ez duela bestelako kontratu txikirik burutu aurretik zehaztutako zenbatekoetatik gora.

Kontratu txikien inguruan zalantza asko sortu dira, besteak beste, zenbatekoaren mugak (40.000 euroak edo 15.000 euroak) kontratu motarekin edo kontratuaren helburuekin lotura badauka; edo urte bateko epea noiztik hasiko den. Horretarako Aragoiko Administrazio kontratazioaren aholku batzordearen 3/2018 txostena eta Estatuko Administrazio kontratazioaren aholku batzordearen 41/2017, 42/2017 eta 5/2018 txostenak dauzkagu.

Bermeoko Udalean hurrengo irizpideak aplikatuko ditugu:

- Kontratu txikia ezin izango da aurreko urteetako kontratu baten jarraipena izan.
- Aurreko urteko gastua onartzen denetik (A fasea) hasiko da zenbatzen urte bateko epea
- Zenbatekoaren muga kontratu mota bakoitzeko izango da. Hau da, 40.000 euro (lan kontratuentzat) eta 15.000 euroak (zerbitzu eta hornidura kontratuentzat) kontratu mota bakoitzeko izango dira. Hau da, hirugarren batek 15.000 eurora arte zerbitzu kontratuak izan ditzake, 15.000 eurora arte hornidura kontratuak izan ditzake eta 40.000 eurora arte lan kontratuak.
- Hasierako beharizanaren justifikazioa kontratazio organoak eskuorde dezake (zinegotzi delegatuei, kontratuaren arduradunari...)

- Datu base eta argitalpenen harpidetzetan ez zaie kontratu txikien zenbatekoaren muga eta denboraren muga, ezta luzapenen debekua aplikatzen

Oro har, kontratu txikien informazioa (helburua, iraupena, zenbatekoa eta esleipendunaren identifikazioa) hiruhilabeteko argitaratu beharko da kontratugilearen profileen. Gainera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere informatu beharko zaio.

- II. Eranskina: kontratu txikien prozedura
- III. Eranskina: Kontratu txikien IN-E ereduak
- IV. Eranskina: Esleipen prozedurak zenbatekoengatik
- V. Eranskina Publizitatea eta eskaintzak aurkezteko epea

4. Prozeduran aldaketak

4.1. Kontratuaren espedientea: hasiera eta edukia (116)

Espedientean hurrengoak izango dira kontuan:

- a. Espedientea hasiko da beharizana justifikatuta.
- b. Espedientean helburua osorik islatu behar da.
- c. Administrazio orri zehatzak eta teknikoak egongo dira.
- d. Kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko dokumentua egon behar da (RC)
- e. Idazkariaren txostena
- f. Kontu-hartzailearen aurretiazko ikuskaritza

Espedientean justifikatuko dira modu egokian hurrengoak:

- a) Aukeratu den prozedura
- b) Eskatuko den klasifikazioa, eskatzen bada
- c) Kaudimena, esleipen irizpideak eta kontratuaren baldintza bereziak
- d) Kontratuaren balio estimatua, osatzen duten kontzeptu guztiak barneratuta (lan kostuak barne, baldin eta badaude)
- e) Administrazioaren beharizana eta kontratuaren helburuaren lotura. Helburua zuzena, argia eta proportzionala izan behar da
- f) Zerbitzu kontratuetan, baliabiderik ez izatearen txostena

g) Kontratua loteetan ez bereiztearen justifikazioa (ez baldin bada bereizten)

Behin espedientea osorik dagoenen, kontratazio organoak ebazpen motibatua emango du espedientea onartzeko eta esleipen prozedura zabaltzeko. Ebazpen horretan gastua onartuko da.

Aurretiazko tramitazioa: nahiz eta kontratuaren exekuzioa hurrengo ekitaldian hasi kontratazio espedientea, esleipena eta formalizazioa aurreko urtean egin daiteke. Horretarako dagozkien kredituak konprometituko dira, aurrekontuaren exekuzio oinarrien arabera.

V. Eranskin moduan prozedurari buruzko eskema

4.2. Merkatuan aurretiazko kontsultak egitea (115)

Merkatuaren ikerketak eta kontsultak egin daitezke, lizitazioa modu egokian prestatzeko.

Horretarako, kontratugilearen profilean argitaratuko da kontsultaren helburua, noiz egingo den eta parte hartuko dutenen identifikazioa, nahi duen orok ekarpenak egin ditzan.

Horrek inola ere ez ezingo du ekarri gardentasuna eta diskriminazio eza printzipioak urratzea (adibidez, ezin dira ezarri aurretiazko kontsultan parte hartu duen enpresa bakar batek bete ahal dituen ezaugarri teknikoak).

Burututako egintzak eta ondorioak azalduz txostena egingo da eta berorri kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontsultan parte hartzeak ez du galaraziko kontratazio prozeduran parte hartzea.

4.3. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kontratuaren balio estimatua eta kontratuaren prezioa (100, 101, 102art)

	Kontzeptua	BEZ	Oharrak
Lizitazioaren oinarrizko	Gehienezko gastua, kontratazio organoak	Bai	Krediturik ez izateak edo

aurrekontua	<p>konprometitu/ xedatu ahal duena</p> <p>Bereizi behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Koste zuzen eta zeharkakoak • Bestelako balizko gastuak • Lan kostuak 		<p>nahikorik ez izateak kontratua deuseza izatea dakar.</p> <p>Espedientearen onarpenak gastua onartzea ekarriko du.</p>
Kontratuaren balio estimatua	<p>Lizitazioaren zenbatekoa da.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lan arloko araudia aplikatzearen kosteak • Zerbitzuen exekuzio materialaren ondoriozko bestelako gastuak • Estrukturaren gastu orokorrak eta onura industrialak • Bestelako balizko aukerak • Kontratuaren luzapen posibleak • Legeak ezarritako bestelakoak 	<p>Ez</p>	<p>Kontratuaren balio estimatua kontuan hartzen da:</p> <p>-SARA kontratuetan</p> <p>-Errekurtso bereziak ezartzeko orduan</p> <p>-Kontratu txikien gehieneko zenbatekoa ezartzeko</p>
Kontratuaren prezioa	<p>Udalak (edo erabiltzaileek) egin behar duen ordainketa edo kontratuaren kontraprestazio ekonomikoa</p>	<p>Bai</p>	<p>Pleguetan %20ra arteko eraldaketak aurreikusten badira, sartu behar dira prezioan.</p>

4.4. Esleipen irizpideak (145 eta hurrengoak)

Erregela orokorra kalitate-prezio erlazio hobereana kontuan hartzea izango da. Beraz, jada, ez da aplikatuko ekonomikoki hobereana dena.

Kalitateari dagokionez hurrengokoak izango dira kontuan: kalitatea bera, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak, funtzionalak, irisgarritasuna, irizpide sozialak (pertsonek ezgaituen aldekoak, laneratzeak, berdintasunaren aldekoak, adiskidetzak, lan baldintzak hobetzekoak), ingurumenekoak (aurrezki eta eraginkortasun energetikoaren aldekoak; energia ...) edo berritzaileak, besteak beste.

Irizpide sozial eta ingurumenekoak derrigorrez eta zeharka aplikatuko dira kontratazio guztian, beti ere, kontratuaren helburuarekin erlazioa badaukate.

Baita kontuan izango da langileriaren kualifikazioa edo esperientzia, kontratua hobeto exekutatzeko eragin ahal duenean.

Salbuespenez, koste-eraginkortasuna kontuan hartu ahal izango da.

Aplikatuko diren irizpideak hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

1. Kontratuaren helburuarekin lotuta egotea
2. Guztiz objektiboak izatea
3. Proporzionalak izatea

Hobekuntzen kasuan guztiz zehatzak izan behar dira, horretarako zehaztu behar dira: baldintzak, mugak, motak, ezaugarriak eta, beti ere, kontratuaren helburuarekin lotura egon behar dira. Hobekuntzek askoz jota %2,5eko balorazioa izango dute.

4.5. Loteak (99.art)

Kontratuak loteetan zatitu behar dira, ez badira loteak ezartzen justifikatu beharko da zergatia, legeak ezartzen ditu arrazoi posibleak (konpetentzia mugatzea, teknikoki hobe izatea ...)

Justifikatuta muga hauek ezarri ahal dira:

a) Eskaintzak aurkezteko aukera muga daiteke

b) Loteak esleitzeko aukera muga daiteke

Pleguetan zehaztuko dira irizpideak eta arauak.

Lote bakoitzeko kontratu bat egingo da, salbuespenak salbuespen. (eskaintza integratuak).

4.6. Kontratuen iraupena (29.art)

Kontratuen gehiengo iraupena aldatu egin da.

Kontratuen iraupenaren laburpen taula

KONTRATUAK	TXIKIAK	HANDIAK
LANAK	Urte 1 luzaezina	Kontratuan zehaztutakoa+ luzapen bat edo batzuk
ZERBITZUAK	Urte 1 luzaezina	5 urte, salbuespenekin
HORNIDURAK	Urte 1 luzaezina	5 urte, salbuespenekin
LANEN EMAKIDAK		40 urte
ZERBITZUEN EMAKIDAK		40 urte: Lanak + Zerbitzuen ustiapena 25 urte: Osasun zerbitzuak ez 10 urte: Osasun zerbitzuak

Zerbitzu eta horniduretan gehienez 5 urteko epea ezarri da. Epe hori luzatu daiteke zenbait kasutan, esate baterako: zerbitzu kontratuetan inbertsioak errekuperatzeko; edota mantenimendurako zerbitzu kontratua ondasunarekin batera kontratatzen denean eta mantenimendua enpresa horrek bakarrik eman ahal duenean, mantentze kontratuaren epea produktuaren bizitza baliagarriarena izan daiteke.

Luzapenei dagokienez, ez dira zertan kontratuaren hasierako iraupena baino txikiagoak izan behar (hau da, hasiera baten urte baterako egin daiteke eta gero lau luzapen urte batekoak egon daitezke).

Luzapenak nahitaezkoak izango dira enpresariarentzat.

Kontratuaren iraupena bukatuta, ez bada kontratu berririk formalizatu kontratazio prozeduran ustekabeko arrazoiak egoteagatik (hutsik gelditzea, errekurtsioak...) eta interes publikoa badago prestazioa ez lotzeko, luzatu daiteke hasierako kontratua kontratu berria exekutatzeko hasi arte, askoz jota 9 hilabetez, aurreko kontratuaren baldintzak aldatu barik eta beti ere lizitazio iragarki berria aurreko kontratua bukatu baino 3 hilabeteko aurrerapenarekin argitaratu bada.

4.7. Erantzukizuneko adierazpena (140.art)

Erantzukizuneko adierazpenak ordezkatu dituzten orain arte A gutun-azalean eskatzen genituen agiri guztiak (gaitasuna, habilitazioa, kaudimena ...). Kontrataziorako europar agiriaren eredia jarraitu behar da adierazpena egiteko.

Adierazpenean egiaztatutakoa kontratua esleitu aurretik aurkeztu beharko du enpresak edota arinago kontratazio organoak beharrezkoa dela uste duenean.

4.8. Kaudimena enpresa berrien kasuan (88, 89 eta 90art.)

500.000 eurotik beherako lan kontratuetan eta SARA kontratuak ez diren zerbitzu eta hornidura kontratuetan (221.000 eurotik beherako) , enpresa berriei

(5 urte baino gutxiago dutenei) ezin zaie kaudimen moduan esperientzia eskatu.

4.9. Kontratazio mahaiak (326art eta 2.7.XG)

Legeak mugatzen du politikoen parte hartzea. Mahaiko eraketaren 1/3 bakarrik izan ahal da politikoa.

Ezin izango dute parte hartu behin-behingo pertsonala (ebentuala) eta bitarteko funtzionarioak bakarrik parte hartuko dute ez dagoenean karrerako funtzionariorik kualifikazio nahikoarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ez digunean emango. Hori guztia, espedientean justifikatu beharko da.

Lehendakaria: udaleko kidea edo funtzionarioa (Gure eraketan zinegotzi delegatua)

Kideak: udal kontu-hartzailea eta udal idazkaria, gutxienez (Gure eraketan kontratuaren arduraduna eta AOT bat ezarri dira)

Idazkaria: udaleko funtzionarioa (Gure kasuan administrari edo administrari laguntzailea)

Kontratazio mahaiaren eraketa kontratugilearen profilean argitaratu behar da.

Dena den, plegu bakoitzean zehaztu beharko dira kideen datu zehatzak eta profilean argitaratu.

4.10. Kontratazioko errekurtsio berezia (44 art eta hurrengoak)

Esparru objektiboaren arabera eta esparru kuantitatiboaren arabera errekurtsioa jartzeko aukera handitzen da.

Hurrengoko kontratuei jarri ahal zaie errekurtsio berezia:

- Lan kontratuak, lan emakidak edo zerbitzu emakidak 3.000.000 eurotik gora, hornidura eta zerbitzu kontratuak 100.000 eurotik gora (Ikus daitekeenez zenbatekoek behera egin dute).

- Akordio esparruak edo sistema dinamikoak (berria)
- Kontratatu administratibo bereziak eta enkarguak prezioa ezin denean zehaztu edo 100.000 eurotik gora (berria)
- Diruz lagundutako zenbait kontratu

Errekurritu daitezkeen egintzak:

- Iragarkiak, pleguak, kontratuak
- Izapide egintzak esleipena erabakitzen badute, prozeduran jarraitzea galarazten badute edo babesgabetasuna edo galera konponezina sortzen badute. Adibidez, kontratazio mahaiko erabakiak lizitatzailerak onartzen, ez onartzen edo baztertzearen aurka errekurtsua jar daitekeela beren beregi adierazten da (berria)

- Esleipen akordioak
- Eraldaketak (berria)
- Enkarguak (berria)
- Kontzesiodunari erreskate akordioak (berria)

Errekurtsio berezia jartzen bada, ez dago administrazio errekurtsioak jartzeko aukerarik.

Errekurtsioa berezia borondatezkoa eta dohainekoa da.

Errekurtsioak eragin etengarria dauka.

Legitimazioari dagokionez, handitu da eta orain sindikatuek eta enpresa-organizazio sektorialek ere errekurtsioa jar dezakete.

4.11. Lankidetzak eta kontratazio zentralak (31, 229art)

Sektore publikoko erakundeek euren artean lankidetzan egon daitezke kontratazio espedienteak izapidetzeko.

- Lankidetzak bertikala izan daitezke, baliabide propioak erabiliz (erakunde autonomoak, Beruola...).

- Lankidetzak horizontala izan daitezke, erakunde publikoekin kontratazioak burutuz (udalen artean, adibidez).

Kontratuen esleipenak arrazionalizatzeko eta ordenatzeko aukera ematen jarraitzen da, besteak beste, kontratazio zentralen bitartez, obra, zerbitzu eta hornidurentzat.

4.12. Kontu-hartzailea (3. XG)

Kontu-hartzaileak ikuskaritzan kontratu berri bakoitzaren oihartzunaren balorazioa egin beharko du (txikietan ez).

Kontu-hartzailea kontratu guztien jasotze materiala egin behar du. (Kontratu txikietan ez). Horretarako, lagundu ahal izango dio kontratuaren helburuan espezializatua den teknikoak, tekniko hori ezin da izan zuzendari fakultatiboa eta erantzulea.

4.13. Idazkaria (3. XG)

Beharrezkoa da idazkariaren txostena hurrengo kasuetan: kontratazio espedienteetan, eraldaketetan, prezioen berrikusketetan, luzapenetan, oreka ekonomikoa mantentzean, kontratuen interpretazio eta ebazpenetan.

Idazkariaren betebeharra izango da publizitate eta informazio betebeharrak koordinatzea.

5. Kontratuaren ondorioak, betetzea eta azkentzea

5.1. Eraldaketak (203.art eta hurrengoak)

Kontratuaren eraldaketan eman daitezke bi kasuetan:

a. Pleguetan aurreikusita daudenean. Kasu horretan askoz jota prezioaren %20a alda daitezke

b. Pleguetan aurreikusita ez daudenean. Askoz jota prezioaren %50a

Kasu horiek dira:

- Lanak, hornidurak eta zerbitzu gehigarriak behar izatea: kontratista aldatzea ez denean posible arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik.
- Behingoan gertatutako inguruabar edo inguruabar ustekabekoengatik
- Eraldaketak ez izateagatik funtsezkoak

Prezioan aldaketak ez badu %20a baino gehiago suposatzen derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat.

Kontratua modu desberdinean exekutatu behar bada, kontratuaren izaera aldatzen bada edo helburua aldatzen bada kontratua bertan behar utzi eta lizitazio berria egin beharko da.

5.2. Azpi-kontratazioak (215art)

%60ko muga desagertu da. Beraz, edozein portzentaiako azpi-kontratazioak egin daitezke, baldin eta kontratua ez bada exekutatu behar zuzenean esleipendunarekin.

Komeni da pleguetan ezartzea lizitatzailleak eskaintzan zehaztu behar izatea zer azpikontratatu duen.

Baimentzen da akzio zuzena pleguetan horrela ezartzen bada, hau da, udalak zuzenean azpikontratatuari ordaintzea. Hala ere, administrazioarekin erantzukizuna kontratatzaileak dauka.

5.3. Kontratuaren erantzulea (62.art)

Nahitaezkoa da kontratu bakoitzean (pleguetan) kontratuaren erantzulea izendatzea . Erantzuleari dagokio exekuzioa ikuskatzea eta erabakiak hartu eta instrukzioak ematea bermatzeko akordatutako prestazioa modu zuzenean ematen dala.

Lan kontratuen erantzulea zuzendari fakultatiboa izango da.

Erantzulea pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke, udalekoa zein ez.

6. Kontratazio elektronikoa

6.1. Espediente elektronikoa (15,16,17 X.G.)

Espedientea derrigorrez eta guztiz elektronikoki egin behar da, bai barnera begira, bai kanpora begira. Horrek zailtasunak (hasierako berrikuntzak) eta onurak ekarriko ditu.

6.2. Publizitatea eta Kontratugilearen profila (63art)

Iragarkien argitalpenak era bestelako argitalpenak kontratugilearen profilean egingo dira; izan ere, aldizkari ofizialetan iragarkiak argitaratzeko betebeharra desagertuko da (borondatez egin daitezke), salbu eta SARA kontratuetan, non Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzen jarraituko dugun.

Kontratazio espedienteko agiri asko argitaratu behar dira kontratugilearen profilean (txostenak, pleguak, akordioak, iragarkiak, kontratazio mahaien aktak, ...)

Erregela orokorra da kontratugilearen profilean 3 hilero kontratu txikien argitalpenak egitea.

6.3. Sektore publikoko kontratazioko plataforma (347art)

Kontratugilearen profilak derrigorrez Sektore Publikoko Kontratazioko Plataforman egon behar dira eta bertatik kudeatu eta zabaldu behar dira.

Baldintza hori bete ezean kontratuak deusezak dira.

7. Kontuan izan beharreko beste batzuk

Ondoren azalduko direnak ez dute aldaketa handirik suposatzen, baina gogoraraztea garrantzitsua ikusten da.

7.1. Kontratuaren izapidetzaren izaera

Mantendu da aurretik ezarrita zegoena, baina interesgarria ikusten da gogoraraztea:

a. Arrunta

Aurretik aipatutako prozedura arrunta.

b. Premiazkoa (119art)

Premiaz izapidetu daiteke beharizan geroraezin bat dagoenean edo esleipena arindu behar denean interes publikoko arrazoiak daudebean.

Espedientea premiazkoa dela adierazi beharko du kontratazio organoak eta hori argudiatu. Espediente arrunten moduan tramitatuko dira, baina berezitasunekin:

- Espedienteek lehentasuna izango dute, 5 egunetan (salbuespenez 10 egunetan) egin beharko dira txostenak

Epeak, oro har, erdira gutxitzen dira, 15 eguneko formalizazio epea izan ezik. Eskaintzak aurkezterakoan, Sara kontratuetan, berezitasunak daude ere.

c. Larrialdietakoa (120art)

Erregimen berezia aplikatuko da udalak berehala jardun behar duenean hondamendiengatik edo arrisku handia suposatzen duten gertaerengatik. Izan ere, ez da espedienterik tramitatuko.

7.2. Epeak (12. XG)

Epeak naturalak dira, salbu eta legeak beren beregi dioen kasuetan, adibidez, kontratua formalizatzeko 15 laneguneko epea edota kontratu oso sinplifikatuetan eskaintzak aurkezteko 10 laneguneko epea.

7.3. Kontratazio organoaren eskumena

Ez dago aldaketarik, baina garrantzitsua da gogoraraztea kontratazio organoa nor den kasu bakoitzean.

Kontratu handiak (2. X.G.)

Eskumenduna	Kontratuak
Tokiko Gobernu Batzarra	Aurrekontuaren sarrera arrunten %10a baino gutxiago eta 4 urtera arte (luzapenak barne)
Osoko Bilkura	Aurrekontuaren sarrera arrunten %10a baino gehiago eta 4 urtetik gora (luzapenak barne)

Kontratu txikiak (martxoaren 5eko 244/2018 Alkatetza Dekretua)

Eskumenduna	Kontratuak
Zinegotzi delegatua	600 eurotik behera
Tokiko Gobernu Batzarra	600 euro edo hortik gora

8. Legearen ondorioz, hartu beharreko neurriak

8.1. Hartutako neurriak

4 hilabeteko *vacatio legis*ean hurrengo neurriak hartu dira:

- c. Kontratugilearen profila euskadiko sektore publikorako kontratuen plataforman ezarri
- d. Kontratazio mahai berria eratu

- e. Espediente txikientzako ereduak egin
- f. Kontratu txikiak berrikusi dira
- g. Kontratazioa elektronikoki egiteko programa egokitu da ad intra

8.2. Hartu beharreko neurriak

- a. Kontratazioa planifikatu
- b. Espediente handientzat ereduak egin
- c. Kontratazioa elektronikoki egiteko programa egokitu *ad extra*
- d. Plegu ereduak
- e. Ustelkeriaren kontrako neurriak hartu
- f. Interesen gatazken aurkako neurriak hartu

9. Ondorioa

Lege berriak aldaketa nabarmenak dakartza eta horrek hasiera batean lan karga eta zailtasunak ekarriko ditu, baina, oro har, gogoz hartu behar da legea. Batetik, betebeharra daukagulako; eta, bestetik, onurak ekarriko dizkigulako. Hain justu ere, lege berriarekin lehiakortasuna, gardentasuna eta osotasuna bermatuko da, aukera ugari egongo dira prozeduretan berrikuntzak ezartzeko eta kontratazio elektronikoarekin, behin irizpideak eta prozedurak finkatuta, denboran eta baliabide pertsonal eta materialetan aurreztuko da.

I. Eranskina. Kontratazio espediente ireki, mugatu, negoziatuen eskema orokorra (Kontratu txikiak eta emakidak kanpo)

	Izapidea	Eskumena	Oharrak	Data
○ <u>1</u>	<p>○ Espedientea hasteko txostena: Beharrizana+ egokitasuna+ hasiera agintzea+ kontratuaren balio estimatua</p> <p>+ <i>Eskumena (zerbitzuetan bakarrik)</i></p> <p>+ <i>Baliabide pertsonal eta materialik ez izatea justifikatu beharko da (zerbitzuetan bakarrik)</i></p>	Zinegotzi ordezkaria/Saileko arduraduna	Beharrizana ondo justifikatu behar da. <i>Zerbitzua herritarrei emateko denean eskumena justifikatu behar da, ez bada eskumen propioa, justifikatu behar da ez dela bikoiztuko eta finantza jasangarritasuna bermatuko dela.</i>	
○ <u>2</u>	○ Atxikipena eskuratzea (RC)	Kontabilitateko teknikaria		
○ <u>3</u>	○ <i>Aurretiatzko zuinketa akta egitea</i>	<i>Arkitektoa</i>	<i>Lan kontratuetan bakarrik</i>	
○ <u>4</u>	Justifikazio txostena egitea:	Idazkaritzako AOTa/	Idazkaritzan	

	Justifikatuko da kontratuaren helburua ez dela zatitu, loteak burutuko direla, epea, prozedura egokia dela, esleipen irizpideak egokiak direla, kaudimena, klasifikazioa eta kontratua exekutatzeko baldintzak	Saileko arduraduna	aholkularitza	
○ <u>5</u>	Administrazio orri zehatzak (idazkaritzan aholkularitza) eta orri tekniko zehatzak prestatzea	Saileko arduraduna	Idazkaritzan aholkularitza	
○ 6	○ Idazkariaren txostena izatea	Idazkari nagusia		
○ 7	○ Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena izatea	Kontu-hartzailea		
○ 8	○ Erabaki proposamena egitea	Saileko arduraduna		
○ <u>9</u>	○ Espedientea hasteko akordioa hartzea: ○ Espedientea hastea	OB/ TGB	TGBaren eskumena Aurrekontuaren	

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Esleipen prozedura zabaltzea ○ Pleguak onartzea ○ Gastua onartzea 		Sarrera Arruntan <input type="checkbox"/> %10 eta <input type="checkbox"/> 6.000.000€; hortik gora OBren eskumena	
○ <u>10</u>	○ Iragarkia argitaratzea/Gonbidapenak bidaltzea	Saileko arduraduna	Administrazio orri zehaztetan zehaztuko da: profilean beti	
○ <u>11</u>	○ Aurkeztu diren eskaera guztien ziurtagiria egitea: onartuak eta ez onartuak	Saileko arduraduna Idazkaria	Zehaztu Sarrera Erregistro data eta zenbakia eta pertsonaren datuak	
○ <u>12</u>	○ Administrazio agiriak aztertzea+ akta/txostena egitea	Kontratazio mahaia/Idazketen duenak	Akta mahaiko idazkariak eta lehendakariak sinatuko du	
○ <u>13</u>	○ Akatsak zuzentzeko edo agiriak aurkezteko epea ematea	Saileko arduraduna		
○ <u>14</u>	○ <i>Gonbidapenak bidaltzea</i>	Saileko arduraduna		<i>Mugatuetan eta negoziatuetan publizitatearekin bakarrik</i>

○ <u>15</u>	○ Proposamenak teknikoak aztertzea+akta/txosten teknikoak egitea	Kontratazio mahaia/lzapidetzen duena	Baldin badaude Administrazio plegu zehatzetan zehaztuko da	
○ <u>16</u>	○ Proposamen ekonomikoak aztertzea +akta/txostena egitea	Kontratazio mahaia/lzapidetzen duena		
○ <u>17</u>	○ <i>Negoziaketa+akta</i>	<i>Kontratazio mahaia/lzapidetzen duena</i>	Negoziatzeko era administrazio plegu zehatzetan zehaztuko da	<i>Negoziatuetan bakarrik</i>
○ <u>18</u>	○ Esleipen proposamena kontratazio organoari egitea+akta/txosten-proposamena egitea	Kontratazio mahaia/Saileko arduraduna	Kontratazio mahaia dagoenean, proposamen ekonomikoaren azterketaren saio berean egin daiteke	
○ <u>19</u>	○ Proposatutako esleipendunari 150.2 artikuluko agiriak eskatzea	Saileko arduraduna	Pleguetan zehaztu behar da aukera hori	
○ <u>20</u>	Esleipen akordioa hartzea: Parte hartzaileen hurrenkera zehaztu	OB/TGB		

	<p>Esleipenaren hirugarrena, prezioa, epea eta zergatik adjudikatuko zaion justifikatu</p> <p>Gastua xedatu</p> <p>Formalizaziorako baldintzak zehaztu</p>			
○ 21	○ Akordioa jakinaraztea	Saileko arduraduna	Interesdun guztiei jakinarazi behar zaie (baztertuei, esleipendunari, esleitu ez zaien ...)	
○ 22	○ Esleipen akordioa argitaratzea	Saileko arduraduna ATB	Administrazio pleguetan zehaztuko da: kontratugilearen profilean beti	
○ 23	○ Kontratua egitea ○	Saileko arduraduna	Idazkaritzan aholkularitza	
○ 24	○ Kontratua formalizatzea ○	Alkatea Esleipenduna	Edo bide elektronikoen, edo idazkariaren aurrean	

		Idazkaria		
○ 25	○ <i>Zuinketa egiaztatzeako akta egitea</i>	<i>Lanen zuzendaria</i> <i>Esleipenduna</i>	<i>Lan kontratuetan bakarrik</i>	
○ 26	○ Formalizazioa argitaratzea ○	Saileko arduraduna ATB	Administrazio pleguetan zehaztuko da: kontratugilearen profileen beti	
○ 27	○ <i>Kontuen Euskal Epaitegira informazioa igortzea</i>	<i>Saileko arduraduna</i> <i>Kontu-hartzailea</i>	<i>Kontratua eta espedientearen laburpena bidali behar da: obretan, obren emakidetan, zerbitzuen emakidetan eta akordio esparruetan kontratuaren balio estimatua 600.000 eurotik gorakoa denean; horniduretan 450.000 eurotik gorakoa; eta zerbitzu eta kontratu berezietan 150.000 eurotik gorakoa.</i>	

○ 28	○ Planifikazioa egitea	Saileko arduraduna	Hurrengo kontratazio espedientea noiz hasi behar den ...	

<u>Azpimarratutakoak</u> kontratugilearen profilean argitaratu behar dira	Arduradunak Saileko arduraduna ATB
--	---

- * *Eskema orokorra da, kasuan-kasuan salbuespenak eta berezitasunak egon daitezke, orri administratibo zehatzetan jarritakoa jarraitu beharko da.*
- ** *Etzanda daude kasu zehatzak*

II. Eranskina. Kontratu txikien prozedura

	Izapidea	Eskumena	Oharrak	Data
1	Espedienteari hasiera emateko onespena: Eskaera, beharrian txostena eta onespena + Eskumena (Zerbitzu kontratuetan)	Zinegotzi delegatua	Beharriaz ondo justifikatu behar da. <i>Zerbitzua herritarrei emateko denean eskumena justifikatu behar da, ez bada eskumen propioa, justifikatu behar da ez dela bikoiztuko eta finantza jasangarritasuna bermatuko dela.</i>	
2	Kontratuaren arduradunaren adierazpena: xedea, kontratuaren jarraipena eta enpresaren gaitasun eta habilitazio profesionalari buruz (5.000 eurotik gora eskatutako aurrekontuen inguruko azalpena ere) ○	Kontratuaren arduraduna		

3	Kontabilitateko arduradunaren adierazpena esleitutako bestelako kontratu txikiei buruz	Kontabilitateko arduraduna		
4	Kontsignazio txostena: RC erantsi beharko da	Kontabilitateko arduraduna		
5	Erabaki proposamena	Kontratuaren arduraduna		
6	Erabakia	Zinegotzi delegatua TGB		
7	Kontratugilearen profileen argitaratzeko datuak ematea	Kontratuaren arduradunak ATB	Gutxienez, kontratuaren helburua, epea, zenbatekoa (BEZa barne), esleipendunaren identitatea	

III. Kontratu txikien IN-E ereduak

KONTRATU TXIKIAK (5.000 eurotik behera)

IN-E 54/04-18

ESKARIA EGITEN DAUEN SAILA:

ESKARIA ETA BEHARRIZANAREN TXOSTENA. ESPEDIENTEA HASTEKO

ONESPENA

Ezaugarriak:

.....
.....

Beharrianaren justifikazioa:

.....
.....

Honen bidez, espedientea hastea onartzen da.

Saileko zinegotzi delegadua

Izen-abizenak

DATEA:

PROPOSATUTAKO PARTIDA ZK. (halan bajagoko):

AURREKONTUA (BEZa kanpo, BEZari jagokon zenbatekoa eta guztira):

(Aurrekonturik balego, erantsi)

KONTRATUAREN ARDURADUNAREN ADIERAZPENA:

Ez dira ekidin kontratazioaren orokorrak: kontratuaren xedea ez da moldatu, ezta zatitu eta ez da aurreko baten jarraipena, ezta aurreikusitakoa.

Egiaztatu da hautatutako enpresek kontratua beteteko gaitasuna eta gaikuntza profesionala daukazala.

Kontratuaren arduraduna

Izen-abizenak

DATEA:

KONTRATATZEA PROPOSATZEN DAN ENPRESEARI ESLEITUTAKO KONTRATU TXIKIAK, AZKENENGO GASTUA ONARTU BAINO URTEBETE LEHENAGOKO EPEAN:

Ez jako bestelako kontratu txikirik esleitu.

Honeek kontratuak esleitu jakoz eta, danetara, kontratu hau barne, ez dira 15.000/40.000* euro gainditu:

- kontratua. Prezioa: euro.
- kontratua. Prezioa: euro.
-

Kontabilitateko arduraduna
Izen-abizenak

DATEA:

**40.000 euro obra kontratuetan, 15.000 euro beste danetan. Azkeneko gastua onartu zaretik urtebete baino gehiago pasatu bada, ez da kontuan eukiko.*

KONTSIGNAZINO TXOSTENAK:

**RC agiria erantsiko da.*

HAUTATUTAKO ESLEIPENDUNA ETA BALDINTZAK:

Aurrekontuaren data eta zenbakia:

Esleipenduna:

Kontratuaren prezioa:

Kontratua beteteko epea:

Ordaintzeko epea: ohikoa

Bestelako baldintzak:

**Obra kontratuetan: obrea, erantsitakodatadun aurrekontuaren eta, jagokonean, obra proiektuaren arabera exekutatu da.*

Gastua onartzeko erabagia:

Organoa: Tokiko Gobernu Batzarra edo zinegotzi delegadua (alkatearen delegazinoz)

Data:

INPRIMAKIA BETETEKO AZALPENAK

1.- Eskaria eta beharizanaren txostena: kontratuaren objektua, ezaugarriak eta beharizana justifikatuko dira (hala nola, zerbitzu kontratuetan udalak baliabide materialik eta pertsonalik ez daukala kontratuari aurre egiteko. Beharizana ez da kontratuaren helburua).

2.- Aurrekontua: esleipendun izateko proposatutakoaren aurrekontua badago, kopurua ipinteaz gain, aurrekontua erantsiko da.

3.- Kontratuaren arduradunaren adierazpena: kontratu txiki legez bideratzeko lege betebeharrak dagozala adierazo behar da, baita be, ez dala objektuaren zatiketarik egon, ez dala moldatu mugen barne sartzeko, ez dala aurretik datorren baten jarraipena edo ez dala urtero errepikatzen.

Ganera, hautatutako enpresek kontratua beteteko gaitasun nahikoa daukala eta gaikuntza profesionala daukazala bermatu behar danez, halan adierazoko da.

4.- Esleipendunak kontratu txikien mugak urtebeteko epean ez dauzala gainditzen adierazotea: urtebeteko epean, enpresa bakotxari ezin jakoz esleipenak egin kontratu txikien muga ekonomikora artekoak baino, kontratu mota bakotxeko.

Hori holan dala, epemuga horretan, kontratu mota bakotxeko (kontratu motak honeek dira: hornidurak, zerbitzuak eta obrak), 15.000 eurora arte esleitu ahal izango jakoz, hornidura edo zerbitzu kontratuetan, eta 40.000 eurora arte obra kontratuetan.

Beraz, enpresa bati, gehienez, 15.000 eurora arteko hornidurak esleitu ahal izango jakoz, gehi 15.000 eurora arteko zerbitzuak, gehi 40.000 eurora arteko obrak, kontratu mota horreek guztiak egiteko ahalmena badauka bere estatutuen arabera.

Urtebeteko epea kontatzeko modua honakoa da: egin gura dan esleipenaren aurretik enpreari onartutako azken gastuaren datatik urtebete atzera eginda. Hori, beti be, azkenengo gastua onartu zanetik eta egin gura dan esleipenaren artean urtebeteko epea igaro ez bada. Urtebeteko epea igaro bada, zerotik zenbatzen hasiko da barriro 15.000 euro edo 40.000 euroko mugea.

5.- Kontsignazino txostenak: kontu-hartzaile eta Kontabilidade arduradunaren txostenak jasoteaz gain, RC agiria nahitaez erantsiko da.

6.- Organo eskuduna: egungo delegazioen arabera, Tokiko Gobernu Batzarra da 601 eurotik gora, eta zinegotzi delegadua 600 eurora arte.

KONTRATU TXIKIAK (5.000 eurotik gora)

IN-E 230/01-18

ESKARIA EGITEN DAUEN SAILA:

ESKARIA ETA BEHARRIZANAREN TXOSTENA. ESPEDIENTEA HASTEKO ONESPENA

Ezaugarriak:

.....
.....

Beharrianaren justifikazioa:

.....
.....

Honen bidez, espedientea hastea onartzen da.

Saileko zinegotzi delegadua
lizen-abizenak

DATEA:

PROPOSATUTAKO PARTIDA ZK. (halan bajagoko):

AURREKONTUA (BEZa kanpo, BEZari jagokon zenbatekoa eta guztira):

(Aurrekonturik balego, erantsi)

KONTRATUAREN ARDURADUNAREN ADIERAZPENA:

Ez dira ekidin kontratazioaren arau orokorrak: kontratuaren xedea ez da moldatu, ezta zatitu eta ez da aurreko baten jarraipena, ezta aurreikusitakoa.

Kontratuaren arduraduna
Izen-abizenak

DATEA:

AURREKONTUAK ESKATU JAKEZAN ENPRESAK:

-
-
-

JASOTAKO AURREKONTUAK:

-
-
-

HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZINOA:

.....
.....

Egiaztatu da hautatutako enpresek kontratua beteteko gaitasuna eta gaikuntza profesionala dauzakala.

Kontratuaren arduraduna
Izen-abizenak

DATEA:

KONTRATATZEA PROPOSATZEN DAN ENPRESEARI ESLEITUTAKO KONTRATU TXIKIAK, AZKENENGO GASTUA ONARTU BAINO URTEBETE LEHENAGOKO EPEAN:

Ez jako bestelako kontratu txikirik esleitu.

Honeek kontratuak esleitu jakoz eta, danatara, kontratu hau barne, ez dira 15.000/40.000* euro gainditu:

- kontratua. Prezioa: euro.
- kontratua. Prezioa: euro.
-

Kontabilitateko arduraduna
Izen-abizenak

DATEA:

*40.000 euro obra kontratuetan, 15.000 euro beste danetan. Azkeneko gastua onartu zanezik urtebete baino gehiago pasatu bada, ez da kontuan eukiko.

KONTSIGNAZINO TXOSTENAK:

*RC agiria erantsiko da.

AUKERATUTAKO ESLEIPENDUNA ETA BALDINTZAK:

Aurrekontuaren data eta zenbakia:

Esleipenduna:

Kontratuaren prezioa:

Kontratua beteteko epea:

Ordaintzeko epea: ohikoa

Bestelako baldintzak:

**Obra kontratuetan: obrea, erantsitako datadun aurrekontuaren eta, proiektuaren arabera exekutatu da.*

Gastua onartzeko erabagia:

Organoa: Tokiko Gobernu batzarra (alkatearen delegazinoz)

Data:

INPRIMAKIA BETETEKO AZALPENAK

1.- Eskaria eta beharizanaren txostena: kontratuaren objektua, ezaugarriak eta beharizana justifikatuko dira (hala nola, zerbitzu kontratuetan udalak baliabide materialik eta pertsonalik ez daukala kontratuari aurre egiteko. Beharizana ez da kontratuaren helburua).

2.- Aurrekontua: esleipendun izateko proposatutakoaren aurrekontua badago, kopurua ipinteaz gain, aurrekontua erantsiko da.

3.- Kontratuaren arduradunaren adierazpena: kontratu txiki legez bideratzeko lege betebeharrak dagozala adierazo behar da, baita be, ez dala objektuaren zatiketarik egon, ez dala moldatu mugen barne sartzeko, ez dala aurretik datorren baten jarraipena edo ez dala urtero errepikatzen.

4.- Eskatutako aurrekontuen laburpena: 5.000 eurotik gorako kontratu txikietan hiru aurrekontu eskatuko dira gitxienez, eta egindako eskari eta jasotako erantzunen laburpena jasoko da inprimakian. Hiru aurrekontu eskatzea ezinezkoa edo desegokia dala ereisten bada, eskatu ez izana justifikatu beharko da.

Ganera, hautatutako enpresek kontratua beteteko gaitasun nahikoa eta gaikuntza profesionala daukazala bermatu behar denez, halan adierazoko da.

5.- Esleipendunak kontratu txikien mugak urtebeteko epean ez dauzala gainditzen adierazotea: urtebeteko epean, enpresa bakoitxari, ezin jakoz esleipenak egin kontratu txikien muga ekonomikora artekoak baino, kontratu mota bakoitxeko.

Hori holan dala, epemuga horretan, kontratu mota bakoitxeko (kontratu motak honeek dira: hornidurak, zerbitzuak eta obrak), 15.000 eurora arte esleitu ahal izango jakoz, hornidura edo zerbitzu kontratuetan, eta 40.000 eurora arte obra kontratuetan.

Beraz, enpresa bati, gehienez, 15.000 eurora arteko hornidurak esleitu ahal izango jakoz, gehi 15.000 eurora arteko zerbitzuak, gehi 40.000 eurora arteko obrak, kontratu mota horreek guztiak egiteko ahalmena badauka bere estatutuen arabera.

Urtebeteko epea kontatzeko modua honakoa da: egin gura dan esleipenaren aurretik enpreari onartutako azken gastuaren datatik urtebete atzera eginda. Hori, beti be, azkenengo gastua onartu zanetik eta egin gura dan esleipenaren artean urtebeteko epea igaro ez bada. Urtebeteko epea igaro bada, zerotik zenbatzen hasten da barriro 15.000 euro edo 40.000 euroko mugea.

6.- Kontsignazio txostenak: kontu-hartzaile eta Kontabilidade arduradunaren txostenak jasoteaz gain, RC agiria nahitaez erantsiko da.

7.- Organo eskuduna: egungo delegazioen arabera, Tokiko Gobernu Batzarra da.

IV. Eranskina. Esleipen prozedura zenbatekoagatik

KONTRATUA	TXIKIAK	IREKIA OSO SINPLIFIKATUA	IREKIA SINPLIFIKATUA	IREKIA	IREKIA SARA
LANAK	<40.000	<80.000	≤2.000.000	<5.548.000	≥5.548.000
ZERBITZUAK	<15.000	<35.000 (intelektualak ez)	≤100.000 (intelektualak bai)	<221.000 <750.000 zer sozial	≥221.000 ≥750.000 zer sozial
HORNIDURAK	<15.000	<35.000	≤100.000	<221.000	≥221.000
LANEN EMAKIDAK				<5.548.000	≥5.548.000
ZERBITZUEN EMAKIDAK				<5.548.000	≥5.548.000

V. Publizitatea eta eskaintzak aurkezteko gutxienerako epea (156.art)

KONTRATUA	TXIKIAK	IREKIA OSO SINPLIFIKATUA	IREKIA SINPLIFIKATUA	IREKIA	IREKIA SARA
LANAK	Hiru hilero Kontratugilearen Profilean (KP)	KP 10 lanegun	KP 20 egun	KP 26 egun	EBAO 35 egun iragarkia bidaltzen denetik
ZERBITZUAK	Hiru hilabetero KP	KP 10 lanegun	KP 15 egun	KP 15 egun	EBAO 35 egun iragarkia bidaltzen denetik
HORNIDURAK	Hiru hilero KP	KP 10 lanegun 5 lanegun merkatuko ondasun higigarriak	KP 15 egun	KP 15 egun	EBAO 35 egun iragarkia bidaltzen denetik
LANEN EMAKIDAK				KP 26 egun	EBAO 35 egun iragarkia bidaltzen denetik
ZERBITZUEN EMAKIDAK				KP 26 egun	EBAO 35 egun iragarkia bidaltzen denetik